



GIPUZKOAKO
ORGANOAK
PLAZARA
2026



GIPUZKOAK ORGANOAK PLAZARA 2026



ORGANOAK PLAZARA 2026

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere ondare kulturala zaindu eta zabaltzeko konpromisoa du, eta konpromiso hori berriro ere agerian geratzen da programa honekin. Izan ere, aukera ematen digu Europako organo bildumarik onenetakoaz gozatzeko, artista ospetsuak eta talentu berriak txalotzen ditugun bitartean.

Ezinbestekoa da ondarea zaintzeko ardua herritarrekin partekatzea –eta, horrela, ondare horrek bizirik iraungo duela bermatzea–, baina horretarako, lehenik, bere balio historiko artistikoaren garrantziaz sensibilizatu behar da, eta haren esanahia ezagutzaren bidez transmititu; baina baita emozioaren bidez ere.

Horregatik, bereziki interesgarria da Aldundiarentzat Musikene ko ikasleek parte hartzea Organoak Plazara egitasmoan, bai publikoaren aurrean duten protagonismoagatik, bai harmonizazio tallerrean ikasle gisa izango duten esperientziagatik. Nabarmentzekoa da, halaber, Andra Mari Abesbatzaren parte hartzea, zalan-tzarik gabe Ignacio Arakistainen lana are gehiago edertuko baitu Usurbilen.

Zaintzea eta transmititzea, ahalegina eta plazerra ere badira aldi berean, eta dedikazio hori Donostiako Elizbarrutiarekin partekatzen dugu; beraz, Gipuzkoako organoen zaintzan erakusten duten esku-zabaltasun eta dedikazioagatik eskerrak eman nahi dizkiet.

Eskerrik beroenak ba Organoak Plazara posible egiten duzuen lagun eta erakunde guztiei; eta bereziki, urtero bertaraten den publiko leialari, jarrai ezazue instrumentu berezi honen eta programaren inguruko interesa eta zaletasuna zabaltzen.

ORGANOAK PLAZARA 2026

El compromiso de la Diputación de Gipuzkoa con la conservación y difusión de su patrimonio cultural se demuestra, una vez más, en la celebración de este programa que nos permite disfrutar de una de las mejores colecciones europeas de órgano, al tiempo que aplaudimos a artistas consagrados y a nuevos talentos.

Compartir la responsabilidad en el cuidado del patrimonio con la ciudadanía, y garantizar así la pervivencia de este legado, exige antes sensibilizar de la importancia de su valor histórico-artístico y transmitir su propósito a través del conocimiento, pero también de la emoción.

Así, tiene especial interés para la Diputación la participación del alumnado de Musikene en Organoak Plazara, tanto en su papel delante del público, como en la de los aprendices en el taller de armonización. Queremos destacar también la intervención de Andra Mari Abesbatza que, sin duda, engrandecerá el trabajo de Ignacio Arakistain en Usurbil.

Cuidar y transmitir son a su vez esfuerzo y placer, que compartimos también con el Obispado de San Sebastián, a quien agradecemos su generosidad y dedicación en el cuidado de los órganos de Gipuzkoa.

Gracias a todas las personas y entidades que hacen posible Organoak Plazara, y de manera muy especial, al público fiel que acude cada edición, a quien animamos a seguir difundiendo su interés y su afición por este instrumento tan singular.

Goizane Alvarez Irijoa
Kultura Diputatua
Diputada de Cultura

Gipuzkoako Organoak Plazara berderatizigarren edizioa aurkezten dugu. Musikenek eta Gipuzkoako Aldundiak bultzatutako ziklo bat da, askotariko jarduerak dituen ziklo moldakor baten bidez sendotzea lortu duguna, gure ondare organistikoa eta organoaren erreperitorioa publikoarengana hurbiltzeko. Aurreko edizioetan bezala, espero dugu oraingo honetan ere publikoak gozatzea Gipuzkoaren organo-ondare bikaina nabarmentzeko prestatu dugun kalitate goreneko programazioaz.

Aurten Azkoitiko (Andre Mariaren Jasokundearen eliza), Ataungo (San Martin Tourskoaren eliza), Irungo (Junkaleko Andra Maria eliza), Usurbilgo (San Salvador eliza) eta Donostiako San Bizente, Koruko Andre Mariaren eta IESUko organoetara hurbilduko gara. Apirilaren 17tik (ostirala) apirilaren 26ra (igandea), aipatutako organo zoragarri horiek ezagutzeko aukera izango dugu, nazioarteko artisten eta Musikenen ilusioz ikasten duen talentu gaztearen eskutik.

Zikloaren hasierako ideia partekatzen duen kontzertu berritzaile batekin hasiko da zikloa. Honetan datza: proposamen interesgarriak aurkeztea, tresna honetan lehenik dauden zikloetakoak ez bezalakoak. Monica Melcova eta Marko Sevarlicen (biak Musikeneko irakasleak) eta gure ikastetxeko akordeoi ikasleen eskutik, inprobisazioa organoaren eta akordeoiaren bitartez konbinatzen duen kontzertu bat da. Hurrengo egunean, apirilaren 18an, larunbatean, Adrien Parretek emango duen harmonizazio-tailer bat izango dugu Musikeneko Organo Aretoan. Egun horretan bertan, 20:00etan, Jan Willem Jansen organistak barroko goiztiarraren obrak interpretatuko ditu Donostiako IESUren elizan. Igandean, 20:00etan, Liesbeth Schlumberger izango dugu, instrumentu honen erreperitorio erromantikora hurbilduko gaituena Koruko Andra Mariaren elizan, Mendelssohnen, Brahmsen, Schu-

Presentamos la novena edición del Gipuzkoako Organoak Plazara, ciclo impulsado por Musikene junto con la Diputación de Gipuzkoa y que hemos logrado consolidar con el objetivo de acercar nuestro patrimonio organístico y el repertorio de órgano al público a través de un ciclo versátil con actividades variadas. Al igual que en anteriores ediciones esperamos que el público disfrute de una programación de máxima calidad que pretende poner de relieve el gran patrimonio organístico del que Gipuzkoa puede presumir.

Este año nos acercaremos a los órganos de Azkoitia (iglesia de Santa María La Real), Ataun (iglesia de San Martín de Tours), Irún (iglesia de Santa María del Juncal), Usurbil (iglesia de San Salvador) y de las donostiarras San Vicente, Santa María del Coro y IESU. Desde el viernes 17 de abril al domingo 26 de abril, tendremos la oportunidad de conocer los maravillosos órganos citados de la mano de artistas internacionales y del joven talento que estudia con ilusión órgano en Musikene.

El ciclo comienza con un novedoso concierto que comparte la idea originaria del ciclo, consistente en presentar propuestas interesantes y diferentes a las de los ciclos ya existentes de este instrumento. Se trata de un concierto que combina la improvisación a través del órgano y el acordeón de la mano de Monica Melcova y Marko Sevarlic (ambos profesores de Musikene) y del alumnado de acordeón de nuestro centro. Al día siguiente, sábado 18 de abril, tendremos un Taller de Armonización impartido por Adrien Parret en la Sala de Órgano de Musikene. Ese mismo día a las 20h, el organista Jan Willem Jansen interpretará obras del barroco temprano en la iglesia del IESU de Donostia. El domingo, también a las 20h, tendremos a Liesbeth Schlumberger en la iglesia de Santa María del Coro, quien nos acercará al repertorio romántico de

mannen eta Francken obrekina . Hurrengo egunean, Liesbethen Masterclass bat emango du goizean, San Bizente elizan.

Apirilaren 23tik (osteguna) aurrera, zikloak bere azken txanpa abiatuko du, programatutako errepertorioetan duten aniztasunagatik oso interesgarriak diren lau kontzertuekin. Lehenengoa ostegunean izango da, Musikeneko organoko ikasleen kontzertu bat. Bertan, ikasturte honetan lantzen ari diren obretako batzuk interpretatzeaz gain, Beatriz Arzamendik organorako bakarrik idatzitako "Kantuz" obra estreinatuko da. Hurrengo egunean, Ignacio Arakistain (Musikeneko ikasle ohia) organoan arituko da, eta Andoni Sierrak zuzendutako Andra Mari Abesbatzak "Itzaletik Argira. Emakumea organoan" izeneko programa interpretatuko du, emakume musikagileek bakarrik egina dena. Apirilaren 25ean, larunbatean, Azkoitian, Cesar Francken eta Louis Viernéren bi obra luze eta berealdiko entzun ahal izango ditugu, Mikel Ansolak (Musikeneko ikasle tituluduna espezialitate honetan) organoan interpretatuak. Zikloa apirilaren 26an amaituko da, igandean, kontzertu batekin Ataungo organo barroko zoragarrian. Loriane Llorca organistak kontu handiz hautatutako errepertorio bat eskainiko du, eta bere bi konposizio ere interpretatuko ditu.

Aurten ere, maisutzak, ikaskuntzak, aurkikuntzak, sorkuntza berriak eta tradizioak bat egin dute ziklo honetan, Gipuzkoako organo bikain horien magiara hurbiltzeko. Eskerrak eman nahi dizkiet Gipuzkoako Foru Aldundiari, zikloan parte hartu duten elizei eta Musikeneko irakasle, ikasle eta bertan trebatutako gazteei beren parte hartzeagatik eta laguntzagatik, haiei esker bihurtuko baita ilusioz betetako proiektu hau errealtate, beste behin.

este instrumento con obras de Mendelssohn, Brahms, Schumann y Franck. Al día siguiente, Liesbeth impartirá durante la mañana una Masterclass en la iglesia de San Vicente.

A partir del jueves 23 de abril el ciclo finalizará su recta final con cuatro conciertos muy interesantes por su variedad en los repertorios programados. El primero será el jueves , un concierto del alumnado de órgano de Musikene en el que, además de interpretar una selección de las obras que están trabajando en este curso, se estrenará la obra para órgano solo de Beatriz Arzamendi, titulada "Kantuz". Al día siguiente, Ignacio Arakistain (ex alumno de Musikene) al órgano y la Coral Andra Mari dirigida por Andoni Sierra interpretará un programa exclusivamente realizado por mujeres compositoras titulado "Itzaletik Argira: Emakumea organoan". El sábado 25 de abril, en Azkoitia, podremos escuchar dos obras extensas y grandiosas de Cesar Franck y Louis Vierné interpretados al órgano por Mikel Ansol, alumno egresado de Musikene en esta especialidad. El ciclo concluirá el domingo 26 de abril con un concierto en el fantástico órgano barroco de Ataun, con un repertorio cuidadosamente seleccionado por la organista Loriane Llorca que también interpretará dos composiciones suyas.

Un año más, la maestría, el aprendizaje, el descubrimiento, la nueva creación y la tradición se unen en este ciclo para acercarnos a la magia de estos magníficos órganos del territorio. Agradezco a la Diputación de Gipuzkoa, a las iglesias implicadas en el ciclo y al profesorado, alumnado y jóvenes formados en Musikene su participación y colaboración para que este ilusionante proyecto sea, una edición más, una importante realidad

Miren Iñarga

Musikeneko Zuzendari Nagusi eta Akademikoa
Directora General y Académica de Musikene

Badira urte batzuk Donostiako Gotzaindegia eta Gipuzkoako Foru Aldundia elkarrekin lanean dihardutela gure ondare organistiko baliotsua babesteko, kontserbatzeko eta sustatzeko. «Organoak Plazara»-ren edizio berri hone-tan, lankidetzaz horrek fruituak eman ditu berriz ere, eta organo-musika Gipuzkoako plaza, eliza eta espazio publikoetara hurbildu da berriz ere, kontzertu-programa zaindu baten bidez.

Organoa ezin da soilik liturgiaren zerbitzura dagoen tresnatzat hartu. Gure nortasun kultural eta espiritualaren adierazpen sakon bat ere bada, jasotako tradizioaren eta gure garaiko sentsibilitate artistikoaren arteko lotura izateaz gain. Mendeetan zehar, Gipuzkoak tradizio musikal bikain bat garatu du, eta organoak leku nabarmena hartu du. Konpositoreek, organistek eta kapera-maisuek aberastu dute ondare hori, eta bizirik dagoen soinu-ondarea utzi digute, ezaguna, baloratua eta partekatua izaten jarraitzea merezi duena.

Kontserbazio- eta dibulgazio-lan horretan, funtsezkoa izan da Gotzaindegiak eta Aldundiak osatutako batzorde mistoaren lana. Haien konpromisoari esker, organo asko zaharberritu ahal izan dira, eta gaur egun ere arrakasta handia dute gure tenpluetan eta beste kultura-eremu batzuetan. Baina lan horrek ez dio orainari soilik begiratzeko. Etorbizunarekiko konpromisoa ere bada. Gure lurreko belaunaldi berriek ondare horren balioa ezagutzea, estimatzea, aztertzea eta etorkizunera proiektatzeko gai izatea nahi dugu.

Horregatik, gure esker ona adierazi behar diegu ekimen hau posible egiten duten guztiei: inplikaturako erakundeei, beren dedikazioarekin eta artearekin tradizio hori sostengatzen duten organistei, Musikene eta beste prestakuntza-zentro batzuetan prestatzen diren gazteei, musika sakratua zaintzen jarraitzen duten parrokiei eta beren babes eta gogoarekin

Desde hace ya varios años, el Obis-pado de San Sebastián y la Dipu-tación Foral de Gipuzkoa vienen trabajando de manera conjunta en la protección, conservación y promoción de nuestro valioso patrimonio organístico. En esta nueva edición de «Organoak Plazara», esa colaboración vuelve a dar sus frutos, acercando una vez más la música de órgano a plazas, iglesias y distintos espacios públicos de Gipuzkoa por medio de un cuidado programa de conciertos.

El órgano no puede entenderse única-mente como un instrumento al servicio de la liturgia. Es también una expresión profunda de nuestra identidad cultural y espiritual, además de un vínculo entre la tradición recibida y la sensibilidad artís-tica de nuestro tiempo. A través de los siglos, Gipuzkoa ha desarrollado una notable tradición musical en la que el órgano ha ocupado un lugar destacado. Compositores, organistas y maestros de capilla han enriquecido con su labor este legado, dejándonos un patrimonio sonoro que permanece vivo y que merece seguir siendo conocido, valorado y compartido.

En esta tarea de conservación y divul-gación, ha resultado fundamental el trabajo de la comisión mixta formada por el Obis-pado y la Diputación. Gracias a su com-promiso, muchos órganos han podido ser restaurados y continúan sonando hoy con toda su riqueza en nuestros templos y en otros ámbitos culturales. Pero esta labor no mira solo al presente. Se trata también de un compromiso con el porvenir. De-seamos que las nuevas generaciones de nuestra tierra descubran el valor de este legado, lo aprecien, lo estudien y sean capaces de proyectarlo hacia el futuro.

Por eso, es obligado expresar nuestro agradecimiento a cuantos hacen posible esta iniciativa: a las instituciones implica-das, a los organistas que sostienen con su dedicación y su arte esta tradición, a los jóvenes que se preparan en Musikene

guztiona den ondare hori kontserbatzen laguntzen duten guztiei.

«Organoak Plazara»ren edizio berri bat aurkeztea benetako poza da beti, gure lurraldeko leku bereziki esanguratsuetan organoaren edertasunarekin eta adierazpen-indarrarekin topo egiteko aukera ematen baitigu guztioi. Nire nahia da musikak arima betetzen jarraitzea, gure kultura aberastuz eta gure musika-herentziaren oroimenari bizirik eutsiz.

Beraz, gonbidatzen zaituztet guztioi edizio berri honetan parte hartzera eta gure organoen aparteko aberastasuna ezagutzten jarraitzera. Kontzertu-ziklo hau aukera ezin hobea izango da berriz ere hain gurea den arte honen ezagutzan eta estimazioan hazteko.

y en otros centros de formación, a las parroquias que continúan cuidando la música sacra y a todas las personas que, con su apoyo y entusiasmo, colaboran en la conservación de este patrimonio que es de todos.

Presentar una nueva edición de «Organoak Plazara» es siempre una verdadera satisfacción, porque nos ofrece a todos la posibilidad de encontrarse con la belleza y la fuerza expresiva del órgano en lugares especialmente significativos de nuestro territorio. Es mi sincero deseo que la música continúe elevando el alma, enriqueciendo nuestra cultura y manteniendo viva la memoria de nuestra herencia musical.

Os invito, pues, a todos y a todas, a participar en esta nueva edición y a seguir descubriendo la riqueza extraordinaria de nuestros órganos. Que este ciclo de conciertos vuelva a ser una ocasión privilegiada para crecer en el conocimiento y aprecio de este arte tan nuestro.

Fernando Prado Ayuso

Donostiako Elizabarrutiko Gotzaina
Obispo de la Diócesis de San Sebastián

EGITARAU OROKORRA - PROGRAMA GENERAL

IRUN

Santa Maria del Junkal Eliza / Iglesia de Santa Maria del Junkal

Apirilak 17 abril, Ostirala

20etan

Kontzertua / Concierto

Monica Melcova, Organoa / **Marko Sevarlic**, Akordeoia

Musikeneko akordeoi ikasleak / Alumnado de acordeón de Musikene

DONOSTIA

Musikene

Organo Gela

Apirilak 18 Abril, Larunbata

10etatik – 13etara

Adrien Parret, Armonizazio Tailerra / Taller de armonización

DONOSTIA

IESU Eliza / Iglesia IESU

Apirilak 18 abril, Larunbata

20etan

Kontzertua / Concierto

Jan Willen Jansen, Kontzertua

DONOSTIA

Santa Maria Eliza / Iglesia de Santa Maria

Apirilak 19 abril, Igandea

20etan

Liesbeth Schlumberger, Kontzertua

DONOSTIA

San Bizente Eliza / Iglesia de San Vicente

Apirilak 20 abril, Astelehena

10etatik – 13etara

Masterclass, **Liesbeth Schlumberger**

DONOSTIA

San Bizente Eliza / Iglesia de San Vicente

Apirilak 23, Osteguna

20etan

Kontzertua / Concierto:

Musikeneko Organoko Ikasleak / Alumnado de Órgano de Musikene

USURBIL

San Salvador Eliza / Iglesia San Salvador

Apirilak 24 abril, Ostirala

20etan

Kontzertua / Concierto

Ignacio Arakistain, Organoa

Andra Mari abesbatza

Zuzendaria: **Andoni Sierra**

AZKOITIA

Santa Maria la Real Eliza / Iglesia de Santa Maria la Real

Apirilak 25 abril, Larunbata

17,30etan

Kontzertua / Concierto

Mikel Ansola

ATAUN

Tourseko San Martinen Eliza / Iglesia de San Martin de Tours

Apirilak 26, Igandea

18,00etan

Kontzertua / Concierto

Loriane Llorca

IRUN

Santa María del Junkal Eliza / Iglesia de Santa María del Junkal

Apirilak 17 abril, ostirala

20etan

“Ellas”

Komorebi

- Improvisación sobre el poema “Tous mes soleils”
Monica Melcova (órgano) / Pedro Rolao & Domenico Raso (acordeones)

Sofia Gubaidulina (1931-2025)

- “Hell und Dunkel”
Bela Brichzin & Petra Jurisa (acordeones)

Improvisación sobre un poema de Alicia Regadera Martín “Hogar”

Monica Melcova (órgano) / Ante Jakovljević & Ibon Asua (acordeones)

Mel Bonis (1858-1973)

- “Le Songe de Cleopâtre” Op. 180 post.
Gabriel Domínguez García & Jéssica Reis (acordeones)

Improvisación sobre la palabra “Songe”

Monica Melcova (órgano)

Adriana Hölszky (1953)

- “Higway for one”

Marko Ševarlić (acordeón)

Improvisación

Monica Melcova (órgano)

Kontzertua / Concierto

Monica Melcova, Organoa / Organo

Marko Ševarlić, Akordeoia / Acordeón

Musikeneko Akordeoi Ikasleak

Alumnado de Acordeón de Musikene

MONICA MELCOVA

Piano eta organo-ikasketak hasi zituen Koen Kontserbatorioan (Eslovakia), eta, geroago, Michael Radulescu Vienako Musika Unibertsitatean jarraitu zituen ikasketak. Bertan, MagistraArtium titulua eskuratu zuen, ohorezko aipamenarekin eta bikaintasun-sariarekin.

Parisko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan Olivier Latry eta Michel Bouvard-ekin perfektionatzen da, eta Meyer Fundazioak eta Soci t  G n ralen musika-mezenasgoaren beka jasotzen du.. Era berean, Fundaci n Nadia y Lily Boulanger fundazioak beka bat ematen dio Lyongo Goi Kontserbatorioan Lo cMalli rekin inprobisazio-ikasketak egiteko.

Ohorezko Diploma Brujaseko Jaialdian (1997), Publikoaren Saria Omenezko Jaialdian (1998), UNESCO Lehiaketaren Sari Berezia Lisboan (2000), Frantziako Orkestra Nazionalaren organista izan zen 2001/02an. 2002ko irailean, Sapporo Concert-Hall-eko Kern organo handiaren organista titularra izendatu zuten. Japonian egon zen bitartean, kontzertu-areto nagusietan aritu zen. Harrezkero, kontzertu-jarduera bizia garatzen du Europa osoan.

Grabazioak egin ditu ORF Vienne, Suisse Romande, France Musique, RTBF Bruxelles, NHK Tokyo, canal ARTE eta abarrentzat. Nazioarteko organo-lehiaketa ospetsuetako epaimahaikide da: Chartres, Haarlem, Groningen, Saint Maurice, Dudelange, Linz, Leipzig, besteak beste, Oravako Nazioarteko Lehiaketa sortuz Eslovakian, gazte organistentzat. 2020tik 2022ra bitartean, organoko irakasle gonbidatua izan zen Kopenghageko Danimarkako Musika Akademian. 2008tik, Musikenen inprobisazioko irakaslea da.

Comenz  sus estudios de piano y  rgano en el Conservatorio de Ko ice (Eslovaquia), estudiando m s tarde en la Universidad de M sica de Viena con Michael Radulescu, donde obtiene el t tulo de MagistraArtium con Menci n de Honor y Premio de Excelencia.

En el Conservatorio Superior de M sica de Par s se perfecciona con Olivier Latry y Michel Bouvard, siendo becada por la Fundaci n Meyer y el mecenazgo musical de la Soci t  G n rale. Asimismo, la Fundaci n Nadia y Lily Boulanger le concede una beca para realizar estudios de improvisaci n con Lo cMalli  en el Conservatorio Superior de Lyon.

Diploma de Honor en el Festival de Brujas (1997), Premio del P blico en el Festival de  ilina (1998), Premio Especial del Concurso UNESCO en Lisboa (2000), fue organista de la Orquesta Nacional de Francia en 2001/02. En septiembre de 2002 fue nombrada organista titular del gran  rgano Kern del Sapporo Concert-Hall. Durante su estancia en Jap n actu  en las principales salas de conciertos. Desde entonces, desarrolla una intensa actividad concert stica en toda Europa.

Ha realizado grabaciones para ORF Vienne, radio de la Suisse Romande, France Musique, RTBF Bruxelles, NHK Tokyo, canal ARTE, etc. Es miembro del jurado de prestigiosos concursos internacionales de  rgano: Chartres, Haarlem, Groningen, Saint Maurice, Dudelange, Linz, Leipzig, entre otros, creando el Concurso Internacional de Orava, en Eslovaquia, para j venes organistas. Entre 2020 y 2022 fue profesora invitada de  rgano en la Real Academia Danesa de M sica de Copenhague. Desde 2008 es profesora de improvisaci n en Musikene.

MARKO ŠEVARLIĆ

Oinarrizko musika-prestakuntza Čačak bere jaioterrian egin zuen, eta Kragujevakeko Musika Eskolan jarraitu zuen ikasten, Vojin Vasovik irakaslearen zuzendaritzapean.

Musikenen ikasi zuen, Iñaki Alberdi irakaslearekin. Ondoren, Alemanian, Master bat eta Meisterklasse diploma lortu zituen Hochschule für Musik Würzburgen, Stefan Hussong irakaslearekin. Kamera-musikarako errepertorio garaikidearen garapenean espezializazioa handitu zuen Conservatoire National Supérieur de Musique et de Danse de Paris (CNSMDP), eta Hochschule für Musik und Theater Münchenen. Ganbera-musika Masterra osatu zuen.

Bakarleri eta ganbera-musikari gisa (duo Jeux d'Anches), Espainiako Musika Gazteen Lehen Saria lortu du akordeoi-modalitatean, eta, Arrasate Hirian, Pula International Accordion Competition, Castelfidardoko PIF eta Klingenthaleko International Accordion Competitionen saritu dute.

Kontzertuak eman ditu Europa osoko jaialdi eta eszenatokietan, baita Armenian, Errusian, Kanadan, Txinan, Israelen eta Japonian ere, eskola magistralak emanaz. Sawallisch Fundazioan, eskusoinuari eskainitako Masterklasa eta kontzertuen ziklo bat diseinatu zituen.

Garrantzi berezia eman dio eskusoinurako obra berrien garapenari, bai bakarleri gisa, bai ganbera-formazioetan, José María Sánchez-Verdú, Ivan Fedele, Heiner Goebbels, Vladimir Genin eta Jesús Torres, Onishi, Ginzler, Bona, Quintana, Majkusiak eta Babajanian konpositoreekin lanikidetzan. Horien obrak sarritan estreinatu ditu. Gainera, erregulartasunez parte hartu du ensemble eta orkestreran, eta aktiboki esku hartu du diziplinarteko proiektuetan.

Musikeneko eta Hochschule für Musik Nürnbergeko irakaslea da.

Realizó su formación musical básica en su ciudad natal, Čačak, continuando sus estudios en la Escuela de Música de Kragujevac bajo la dirección del profesor Vojin Vasović.

Estudió en Musikene con el profesor Iñaki Alberdi. Posteriormente en Alemania obtuvo un Máster y el Diploma de Meisterklasse en la Hochschule für Musik Würzburg con el profesor Stefan Hussong. Amplió su especialización en el desarrollo del repertorio contemporáneo para música de cámara en el Conservatoire National Supérieur de Musique et de Danse de Paris (CNSMDP), completando su formación con un Máster en Música de Cámara en la Hochschule für Musik und Theater München.

Como solista y músico de cámara (duo Jeux d'Anches) ha obtenido el Primer Premio en Juventudes Musicales de España en la modalidad de acordeón y premiado en el Arrasate Hiria, Pula International Accordion Competition, PIF de Castelfidardo e International Accordion Competition de Klingenthal.

Ha realizado conciertos en festivales y escenarios de toda Europa, así como en Armenia, Rusia, Canadá, China, Israel y Japón, impartiendo clases magistrales. En la Fundación Sawallisch diseñó un ciclo de Masterclasses y conciertos dedicados al acordeón.

Concede especial importancia al desarrollo de nuevas obras para acordeón, tanto como solista como en formaciones de cámara, colaborando con los compositores José María Sánchez-Verdú, Ivan Fedele, Heiner Goebbels, Vladimir Genin y Jesús Torres, Onishi, Ginzler, Bona, Quintana, Majkusiak y Babajanian, cuyas obras ha estrenado en numerosas ocasiones. Además, participa regularmente en ensembles y orquestas y está activamente implicado en proyectos interdisciplinares.

Es profesor en Musikene y en la Hochschule für Musik Nürnberg.

DONOSTIA

Musikene, Organo Gela / Aula de Organo

Apirilak 18 abril, larunbata

10etatik – 13etara

Adrien Parret, Armonizazio Tailerra / Taller de Armonización

Tailerraren programa:

Mihi frantsesaren hastapenak: historia, oinarri orokorrak eta musika-erabilera.

Tailer praktikoa: ikasleek mihi-hodi batzuk harmonizatzen dituzte (tronpetta-hodi bat, kromornozko hodi bat eta klarinete-hodi bat).

Lehenengo zatian, Frantziako organoaren mihi-erregistroei buruzko, funtzio-namenduari buruzko eta eraketari buruzko oinarri orokorrak azaltzen dira. Ikuspegi historiko eta tekniko horri esker, ikasleek aukera edukiko dute organo frantses batek musikan duen erabilera eta erregistroa nolakoa den ikusteko.

Bigarren zatian, ikasleek beste hiru tuturen harmonizazioan parte hartuko dute, metalezko mihiak beraiek ebakiz, kurba emanez eta mozketa tonuaren bidez eginez. Aurkezpen teorikoan nabarmendutako oinarri operatiboak ulertzea eta aplikatzea da helburua. Nahiz eta ez dauden organogile izatera behartuta, zalantzarik gabe, instrumentu bat hobeto joko da haren erabilera egoki ulertzen bada.

Programa del Taller:

Introducción a la lengüeta francesa: historia, principios generales y uso musical.

Taller práctico: los estudiantes armonizarán varios tubos de lengüeta (un tubo de trompeta, un tubo de cromorno y un tubo de clarinete).

La primera parte consistirá en una presentación sobre los registros de lengüeta en el órgano francés, los principios generales de su funcionamiento y construcción. Este enfoque histórico y técnico permitirá a los estudiantes explorar su uso en la música y el arte de registrar un órgano francés.

En la segunda parte, los estudiantes participarán en la armonización de tres nuevos tubos, cortando ellos mismos las lengüetas de metal, dándoles la curva y realizando el corte a tono. El objetivo es comprender y aplicar los principios operativos destacados en la presentación teórica. Si bien no necesariamente están destinados a convertirse en organeros, sin duda se puede tocar mejor un instrumento si se lo comprende a fondo.

ADRIEN PARRET

Adrien Parret 1994an jaio zen eta SAS Michel Jurine enpresako hiru gerenteetako bat da. Erakunde hau tradizio sinfoniko frantseseko organoak zaharberritzen eta eraikitzen espezializatutako enpresa da. Organoa ikasi zuen Yukiko Jojimarekin eta Dominique Reveyronekin, eta Michel Jurine izeneko tailerreko ikasle izan zen, arotzeriako prestakuntza bukatu ondoren. Bere nagusiaren bidez afinatzaile-lanbidea ikasi zuen, eta Europako hainbat herrialdetako eta Hego Koreako (Dijongo katedrala, Bergarako San Pedro, Seul, etab.) organoak zaharberritzeko eta eraikitzeko aukera izan zuen. 2024an, tailer-raren zuzendaritza bere gain hartu zuen, bi bazkiderekin batera: Nicolas Clément eta Mathieu Delmas. Taldea 10 pertsonak osatzen dute gaur egun, eta hainbat proiektu garrantzitsu dituzte esku artean, besteak beste, Cavaille-Colleko hiru organo zaharberritzea (Sacre-Coeur Montmartrekoa Parisen, Nancyko katedrala eta San Karlos eliza Marseillan).

Artisaua eta musikaria, St-Didier au Mont d'Or-eko organista da, eta Lyongo komentuko ordezkiko organista. Malinaseko (Belgika) Karilloigileen Errege Eskolako graduatua ez ezik, Dijon katedraleko karilloiaren eta Miribelgo karilloiaren kontserbadorea ere bada. Noizean behin Europan kontzertuak emateko gonbidatua izaten da eta "Portées par le vent" (Hai-zeak eramanak) izeneko albuma argitaratu zuen 2024an Hortus argitaletxearekin. 2025ean, Kultura Ministerioko kanpanologiako aditu izendatu zuten.

Nacido en 1994, Adrien Parret es uno de los tres gerentes de SAS Michel Jurine, organero, empresa especializada en la restauración y construcción de órganos de tradición sinfónica francesa. Estudió órgano con Yukiko Jojima y Dominique Reveyron y se incorporó al taller de Michel Jurine como aprendiz tras completar una formación de carpintería. Aprendió el oficio de afinador con su empleador y tuvo la oportunidad de participar en la restauración y construcción de órganos para diversos países europeos y Corea del Sur (Catedral de Dijon, San Pedro de Bergara, Seúl, etc.). En 2024, asumió la dirección del taller junto con dos socios: Nicolas Clément y Mathieu Delmas. El equipo está formado actualmente por 10 personas y gestiona simultáneamente varios proyectos importantes, entre ellos la restauración de tres órganos de Cavaille-Coll (Sacre-Coeur de Montmartre en París, Catedral de Nancy e Iglesia de San Carlos en Marsella).

Artesano y músico, es organista de St-Didier au Mont d'Or y organista suplente del convento dominico de Lyon. Graduado de la Real Escuela de Carilloneiros de Malinas (Bélgica), también es conservador del carillón de la Catedral de Dijon y carilloneiro de Miribel. Invitado regularmente a dar conciertos en Europa, publicó un álbum, "Portées par le vent" (Llevados por el viento), con la editorial Hortus en 2024. En 2025, fue nombrado experto en campanología del Ministerio de Cultura.

DONOSTIA

IESU Eliza / Iglesia IESU

Apirilak 18 abril, larunbata

20etan

- | | |
|---|--|
| Thomas Tomkins
(1572-1656) | *In nomine. January 20, 1647
[gloria Tibi Trinitas]
*[In nomine]. May, 1648
gloria Tibi Trinitas
*A verse of 3 p[ar]ts. Aug[ust] 12th, 1650
*Fancy
*Voluntary
*[In nomine] gloria Trinitas. Jun[e] 16, 1648
*[In nomine] gloria tibi Trinitas. Oct 27, 1648
*In nomini [gloria tibi Trinitas]. June 28, 1652
*A sad paven. Febr[uary] 14, 1652
For these distracted Tymes |
| Georg Böhm
(1661-1733) | *Praeludium [Fuga et Postludium]
ex Gb |
| Delphin Strungk
(1661-1694) | *Magnificat Noni Toni
Meine Seele erhebt den Herrn.
-[Primus Versus]
-Secundus Versus Auff 2 clavier Manualiter
-Versus Tertius |
| Heinrich Scheidemann
(1595-1663) | *Magnificat I. Toni
- [1. Versus]
- 2. Versus. Auff Zwey Clavier Pedaliter.
- 3. Versus. Pedaliter
- 4. Versus. Manualiter |

Jan Willem Jansen, Kontzertua

JAN WILLEM JANSEN

Jan Willem Jansen, Herbehereetan jaioa da eta musika ikasi zuen Jan Warlink, Willem Mesdag eta Wim van Beek-ekin. Hagako Errege Kontserbatorioko bakarlari-diploma lortu zuen 1977an, eta klabizenbalo-ikasketak sakondu zituen Ton Koopmanekin Amsterdamen. Ondoren, Frantzia jarraitu zuen ikasten, Xavier Darasserekin, eta irakasle laguntzaile bihurtu zen Toulouseko Kontserbatorioan, non gaur egun organo eta klabizenbalo eskolak ematen baititu.

Erakunde honetako Antzinako Musika sailaren sortzaileetako bat da eta, Michel Bouvardekin batera, "Organoa eta Teclatua" izeneko sail berria zuzentzen du. Bere ibilbide artistikoari esker, Europako talde barroko garrantzitsuekin jotzeko aukera eduki du, hala nola Parisko Chapelle Royale, Collegium Vocale Gent, Hesperion XX, Toulouseko Les Sacqueboutiers eta Limogeseko Ensemble Baroque. Agustindarren Museoko Ahrend organoaren organo-jole nagusia da, baita Toulouseko Andre Maria Daurade basilikakoa ere.

1997ko Toulouseko Organoen Jaialdirako, Bruhns-eko organorako obra osoa grabatu zuen Tempéraments serierako, Martin Gester-en zuzendaritzapean Musika Parlamentuak interpretatutako konpositore bereko kantatekin osatuta. 1998an, Cabanilles grabatu zuen Zaragozako San Pablo elizaren organo historikoan.

Nacido en los Países Bajos, Jan Willem Jansen estudió música con Jan Warlink, Willem Mesdag y Wim van Beek. Obtuvo el diploma de solista del Conservatorio Real de La Haya en 1977 y amplió sus estudios de clavicémbalo con Ton Koopman en Amsterdam. Posteriormente, continuó sus estudios en Francia con Xavier Darasse, convirtiéndose en su colaborador docente en el Conservatorio de Toulouse, donde actualmente imparte clases de órgano y clavicémbalo.

Es cofundador del departamento de Música Antigua de esta institución y, junto con Michel Bouvard, dirige el nuevo departamento avanzado de "Órgano y Teclado". Su trayectoria artística lo ha llevado a tocar con importantes conjuntos barrocos europeos, como La Chapelle Royale de París, el Collegium Vocale Gent, Hesperion XX, Les Sacqueboutiers de Toulouse y el Ensemble Baroque de Limoges. Es el organista titular del órgano Ahrend del Museo de los Agustinos y de la Basílica de Notre-Dame de la Daurade en Toulouse.

Para el Festival de los Órganos de Toulouse de 1997, grabó la obra completa para órgano de Bruhns para la serie Tempéraments, complementada con cantatas del mismo compositor interpretadas por el Parlamento de Música bajo la dirección de Martin Gester. En 1998, grabó Cabanilles en el histórico órgano de la Iglesia de San Pablo de Zaragoza.

DONOSTIA

Santa Maria Eliza / Iglesia de Santa Maria

Apirilak 19 abril, Igandea

20etan

Félix Mendelssohn-Bartholdy (1809-1847)	Sonate opus 65 n°3 en La Majeur <i>Allegro Maestoso</i> <i>Andante</i>
Johannes Brahms (1833-1897)	Fugue en la bémol
César Franck (1822-1890)	Grande Pièce Symphonique op 17 <i>Andantino serioso-allegro non troppo e</i> <i>Maestoso andante</i> <i>allegro - andante - allegro non troppo e</i> <i>maestoso</i>
Robert Schumann (1810-1856)	Fugue sur le nom de B.A.C.H op 60 n°6

Concierto de Liesbeth Schlumberger

LIESBETH SCHLUMBERGER

Liesbeth Schlumberger Stephan Zondaghekin trebatu zen Hegoafrikako Pretoriako Unibertsitatean. Europan, organo ikasketekin jarraitu zuen Marie-Claire Alain eta Jean Boyerekin, klabizenbaloa Huguette Dreyfusekin eta inprobisazioa Jean Langlaisekin. Interpretazio organistikoa ikertzen jarraitu zuen Jean-Claude Zehnder, Harald Vogel eta Jacques van Oortmerssenekin.

Hego Afrikako Irrati Hedapeneko Korporazio Publikoaren (SABC) Musika Sari Nazionala lortu zuen, eta Bordeleko Organoaren Nazioarteko Lehiaketan saritua izan zen.

1994az geroztik, L'Étoile Eliza Protestante Batuko Mutin Cavaillé-Coll organoaren organista titularra da Parisen. L'Étoile-ko Organo Handien Lagunen Elkartearentzat, "Larunbat Musikalak" eta Bachen Zikloko Orkestra Osoaren 21 kontzertuen (2024-2030) antolakuntzan parte hartu du.

1996an, Jean Boyerren laguntzaile izendatu zuten Lyongo Musika eta Dantza Kontserbatorio Nazionalan. 2004az geroztik, lan horretan dihardu François Espinasserekin lankidetzan.

2015ean, Bloemfonteingo Unibertsitate Libreko Odeion Musika Eskolak (OSM) Liesbeth Schlumberger Organo Katedra sortu zuen. Organista kontzertatista gisa, Europan, Asian eta Hegoafrikan aritu da. Stephan Grové konpositore hegoafrikarren l'Africa Hymnus lanaren lehen interpretazio frantsesa eskaini zuen Chartresko katedraleko organoan. Priory Records-ek CD grabazio bat egin zion Johannesburgoko Santa Maria katedralean, OrganMusic serie ezagunaren barruan.

Era berean, grabazioak egin ditu Frantzia, Espainia eta Hegoafrikako irratietan. 2021eko urrian, Parisko Radio France-ren auditorioan, Gilbert Amy konpositorearen Invention IVren munduko estreinaldia interpretatu zuen.

Erregulariki, organo interpretazio-lehiaketen epaimahaian parte hartzera gonbidatzen dute.

Se formó con Stephan Zondaghe en la Universidad de Pretoria (Sudáfrica). En Europa, continuó sus estudios de órgano con Marie Claire Alain y Jean Boyer, de clavicémbalo con Huguette Dreyfus y de improvisación con Jean Langlais. Continuó su investigación en interpretación organística con Jean-Claude Zehnder, Harald Vogel y Jacques van Oortmerssen.

Obtuvo el Premio Nacional de Música de la Corporación Pública Sudafricana de Radiodifusión (SABC) y fue laureada en el Concurso Internacional de Órgano de Burdeos.

Desde 1994 es organista titular del órgano Mutin Cavaillé-Coll de la Iglesia Protestante Unida de L'Étoile en París. Participa en la organización de los conciertos "Sábados Musicales" y de los 21 conciertos de la Orquesta Completa J.S. Ciclo de Bach (2024-2030) para la Asociación de Amigos de los Grandes Órganos de L'Étoile.

En 1996, fue nombrada asistente de Jean Boyer en el Conservatorio Nacional de Música y Danza de Lyon. Desde 2004, continúa esta labor en colaboración con François Espinasse.

En 2015, la Escuela de Música Odeion (OSM) de la Universidad Estatal Libre de Bloemfontein creó la Cátedra de Órgano Liesbeth Schlumberger. Organista concertista, actúa en Europa, Asia y Sudáfrica. Ofreció la primera interpretación francesa de l'Africa Hymnus del compositor sudafricano Stephan Grové en el órgano de la Catedral de Chartres. Priory Records publicó una grabación en CD en la Catedral de Santa María de Johannesburgo, dentro de su serie Popular OrganMusic.

Ha realizado grabaciones para la radio francesa, española y sudafricana. En octubre de 2021, en el Auditorio de Radio France de París, interpretó el estreno mundial de la Invencción 4 del compositor Gilbert Amy.

Es invitada regularmente a formar parte del jurado de concursos de interpretación de Órgano.

DONOSTIA

San Bizente Eliza / Iglesia de San Vicente

Apirilak 20 abril, Astelehena

10etatik – 13era

Masterclass de Liesbeth Schlumberger

DONOSTIA

San Bizente Eliza / Iglesia de San Vicente

Apirilak 23 abril, Osteguna

20etan

Miren Izulain Urquia, 1º Órgano

- César Franck, Fantaisie en UtM

Javier Moreno Lorenzo, 3º Órgano

- Arnold Schönberg, variations on a recitative for organ Op. 40

Iñaki Sanchez Vara, 4º Órgano

- Beatriz Arzamendi Ceciaga, Kantuz. Estreno absoluto

Santiago Sacristan Ruiz, 3º Órgano

- Louis Vierne, Symphonie N°6 Op. 59, Final

Roberto Hernandez Corral, 4º Órgano

- Maurice Duruflé, Prélude et Fugue sur le nom d'Alain

Musikeneko Organo klasearen Kontzertua
Concierto de la **clase de Órgano de Musikene**

USURBIL

San Salvador Eliza / Iglesia de San Salvador

Apirilak 24 abril, Ostirala

20etan

Itzaletik argira: emakumea organoan De la sombra a la luz: la mujer en el Órgano

Nadia Boulanger (1887-1979)	Trois Improvisations pour orgue Prélude Petit Canon Improvisation
Richard Wagner (1813-1883)	Vorspiel zu Tristan und Isolde (Bearbeitung: A.W. Gottschalg)
Junkal Guerrero (1968)	Arimen Besarkadan Requiem-Introitus Absentziari lo kanta Offertorium Sanctus Pie Jesu Agnus Dei Libera me Arimen besarkadan

Kontzertua / Concierto
Ignacio Arakistain, Organoa
Andra Mari Abesbatza
Zuzendaria: **Andoni Sierra**

IGNACIO ARAKISTAIN

Ignacio Arakistain Agirre Azpeitian jaio zen, 1998an. Musika munduan bere lehen pausuk herriko Juan de Antxieta musika eskolan eman zituen. Ondoren, bere ibilbidea, Donostiako Francisco Escudero erdi mailako kontserbatorioan jarraitu zuen, Junkal Guerrero irakaslearekin piano ikasketak eginez. Bere herrian hasi zituen, baita ere, organo ikasketak, Jose Luis Frantzesena irakaslearekin. Kalifikazio gorenekin amaitu zituen 2021ean bere ikasketak Musikene, Euskal Herriko goi mailako musika ikastegian.

Etengabea izan da bere parte hartzea proiektu kulturaletan. Ganbera-musikaren alorrean, nabarmentzekoak dira Garazi Navas akordeoi-jolearekin zein Peio Irigoien txistulariarekin gauzatutako proiektuak. Bestalde, 2022ko urtarrilean VI. Donostiako Orfeoia-Musikene Saria jaso zuen, Valentin Larrea (1876-1970) konposatzaileari buruz eginiko lanagatik. Vienako Musika eta Arte Dramatiko Unibertsitatean bere masterreko ikasketak amaitu zituen 2024an, Pier Damiano Peretti maisuarekin lan egin ondoren. Tolosako (Frantzia) Conservatoire a Rayonnement Régional Xavier Darasse instituzioan formazio osagarri jaso du.

Ignacio Arakistain Agirre nació en Azpeitia en 1998. Allí fue donde dio sus primeros pasos en el mundo de la música. Continuó su formación pianística en el conservatorio Francisco Escudero de San Sebastian, con la profesora Junkal Guerrero. Al mismo tiempo, comenzó a tocar el órgano bajo la dirección del profesor Jose Luis Frantzesena. Finalizó con las más altas calificaciones los estudios de órgano en el Centro Superior de Música del País Vasco, Musikene, con los profesores Esteban Landart, Monica Melcova y Karol Mossakowski, entre otros.

Su participación en proyectos culturales ha sido continua. En el campo de la música de cámara, caben destacar sus trabajos con el txistulari Peio Irigoien y la acordeonista Garazi Navas. Asimismo, en enero de 2022 fue premiado con el VI. Premio Orfeón Donostiarra-Musikene por su trabajo sobre la figura del compositor Valentin Larrea (1876-1970). Tras realizar sus estudios de máster en la Universidad de Música y Arte Dramático de Viena bajo la tutela del profesor Pier Damiano Peretti, ha completado su formación en el Conservatoire a Rayonnement Régional Xavier Darasse de la ciudad del Toulouse.

ANDRA MARI ABESBATZA

Andra Mari abesbatza Erreterian sortu zuen José Luis Ansorenak 1966an, eta, harrezkero, kontzertu-jarduera luzea eta sendoa egin du abesbatza-musikaren esparruan, bai Euskadin, bai Estatuan.

Orkestra-talde ospetsuekin parte hartu du, eta grabazio ugari egiteaz gain, zuzendari eta bakarlari handiekin lan egin du.

Andra Mari koruak erreperitorio zabala du, genero koral guztiak hartzen baititu, operak eta zarzuela barne, eta euskal musikan duen espezialitatea nabarmenduz.

Gainera, MUSIKASTE Euskal musikaren astea sortu eta antolatu du Erreterian, eta, musikako aste honen programazio-premiekin zuzenean lotuta, José Luis Ansorenak sortu zuen ERESBIL Musikaren Euskal Artxiboaren sortzailea ere bada.

Lan hori guztia aintzatesteko, 2015ean Andra Mari Real Sociedad Bascongada de los Amigos del Paíseko bazkide kolektibo izendatu zuten.

José Luis Ansorena koruko zuzendaria erretiratu ondoren, lan hori José Manuel Tífeke egin zuen 2015. urtera arte. Geroztik, Andoni Sierra da Andra Mari abesbatzako zuzendaria.

La coral Andra Mari fue fundada en Erretería por José Luis Ansorena en el año 1966 y desde entonces ha desarrollado una larga e intensa actividad concertística dentro del ámbito de la musical coral tanto en el País Vasco como a nivel estatal.

Ha participado con prestigiosas formaciones orquestales, y trabajado con grandes directores y solistas además de realizar numerosas grabaciones.

El coro Andra Mari tiene un amplio repertorio que abarca todos los géneros corales incluidas las óperas y la zarzuela, destacando su especialidad en la música vasca.

Además, es fundadora y organizadora de MUSIKASTE semana de música vasca en Erretería y, directamente unida a las necesidades de programación de esta semana de música, fundadora también del Archivo Vasco de la Música ERESBIL que fundó de José Luis Ansorena.

En reconocimiento a todo este trabajo, en 2015 Andra Mari fue nombrada socia colectiva de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

Tras la jubilación de José Luis Ansorena como director del coro, esta labor fue llevada a cabo por José Manuel Tífe hasta el año 2015. A partir de esa fecha Andoni Sierra es el Director de la Coral Andra Mari.

AZKOITIA

Santa Maria la Real Eliza / Iglesia de Santa María La Real

Apirilak 25 abril, Larunbata

17,30etan

César Franck Trois Chorals: No.2 in B minor
(1822-1890)

Louis Vierne..... Symphonie Nr.3 en fa dièse mineur pour
(1870-1937) Grand Orgue op.28
I. Allegro maestoso
II. Cantilene
III. Intermezzo
IV. Adagio
V. Final

Kontzertua / Concierto

MIKEL ANSOLA

MIKEL ANSOLA

Markina-Xemein, 2000. Bere jaioterrian eta Ondarroan hasi zituen musika-ikasketak, eta Martin Alberdiren eskutik organo munduan barneratu zen. Ondoren, organoa ikasi zuen Bergarako musika-eskolan, Aitor Olea eta Josean Pascual irakasleekin, eta, geroago, Loreto Fernández Imazekin, Donostian.

Goi mailako organo ikasketak Musikenen Esteban Landart (organoa), Loreto Fernández Imaz (baxu jarraitua), Loïc Mallié, Monica Melcova eta Karol Mossakowski (inprobisazioa), Staatliche Hochschule für Musik und Darstellende Kunst Stuttgart irakaslearekin amaituz, Jörg Halubek irakaslearen zuzendaritzapean eta kalifikazio gorenekin. Organo Masterra burutzen du ikastetxe berean Jürgen Essl irakaslearekin. Era berean, piano klaseak jaso ditu Maria Sofianska eta Sabine Sauerrekin, eta klabetxo Masterclasetan parte hartu zuen Jörg Halubek, Pier Damiano Peretti, Michel Bouvard eta Jon Laukvikekin.

Kontzertuak eskaini ditu Espainiako eta Alemaniako hainbat jaialditan, lau eskuko bakarleri gisa edo abesbatzekin batera: Donostiako Musika Hamabostaldia, Leongo Katedraleko Organo Zikloa, Diego Amezua Bizkaiko Hotsak Organo Jaialdia, Stuttgart-eko Internationale Bach Akademie, Bartzelonako Katedraleko Organo Kontzertuen XXXV. Zikloa, Urdaibaiko Organo Jaialdia, UOJE, Fuente Álamo Organo Jaialdia.

Stuttgart-eko Petruskircheen erakundearen organista titularra izan da, eta aurtengo VII.edizioko Markina-Xemeingo Musika Haizeak musika-zikloaren koordinatzailea da.

Markina-Xemein, 2000. Comienza sus estudios musicales en su pueblo natal y en Ondarroa, mientras se adentra en el mundo del órgano con Martin Alberdi. Posteriormente estudia órgano en la escuela de música de Bergara con los profesores Aitor Olea y Josean Pascual y más tarde con Loreto Fernández Imaz en San Sebastián.

Estudios superiores de órgano en Musikene con Esteban Landart (órgano), Loreto Fernández Imaz (Bajo continuo), Loïc Mallié, Monica Melcova y Karol Mossakowski (improvisación), terminando en la Staatliche Hochschule für Musik und Darstellende Kunst Stuttgart bajo la dirección del profesor Jörg Halubek con las máximas calificaciones. Realiza el Máster de Órgano en el mismo centro con el profesor Jürgen Essl. Asimismo, recibe clases de piano con Maria Sofianska y Sabine Sauer y de clavecín con Jörg Halubek, asistiendo a las Masterclases de Pier Damiano Peretti, Michel Bouvard y Jon Laukvik.

Ha realizado conciertos en distintos festivales de España y Alemania como solista a cuatro manos o acompañando coros: Quincena Musical de San Sebastián, Ciclo de Órgano en la Catedral de León, Festival de Órgano Diego Amezua Bizkaiko Hotsak, Internationale Bach Akademie de Stuttgart, XXXV Ciclo de Conciertos de Órgano de la Catedral de Barcelona, Festival de Órgano de Urdaibai UOJE, Festival Internacional de Órgano de Fuente Álamo.

Ha sido organista titular de la Petruskircheen de Stuttgart y es el coordinador del ciclo de música Musika Haizeak de Markina-Xemein que este año celebra su VII edición.

ATAUN

San Martin de Tours Eliza / Iglesia de San Martin de Tours

Apirilak 26 abril,Igandea

18,00etan

Anonyme (XVIe)

- Upon La mi ré

Codex Faenza (XVe)

- Constancia
- Elas mon cuer

G. Frescobaldi (1583-1643)

- Bergamasca
- Toccata per l'elevazione

L. Llorca

- Èrsa

J.B. Cabanilles (1644-1712)

- Corrente italiana

J.P. Sweelinck (1562-1621)

- Onder een Linde groen

L. Llorca

- Ayre

J.S. Bach (1685-1750)

- Chaconne BWV 1004 (transcription pour orgue)

Kontzertua / Concierto

Loriane Llorca

LORIANE LLORCA

Loriane Llorca, organista kontzertista, 2021ean Organo interpretazioan maste-rra amaitu zuen Olivier Latry eta Michel Bouvard maisuekin, eta 2022an Baxu kontinuoko masterra, Parisko Goi Mailako Musika eta Dantza Kontserbatorio Nazio-nalean.

Arte Ederren Akademiak antolatutako Jean-Louis Florentz Nazioarteko Lehia-ketan Sari Nagusia eta Publikoaren Saria irabazi zituen 2017an, France-Ustaritzeko Fondation, Fondation Meyer, Fondation Tarrazi, Adami, Soci t  G n rale eta l'Or du Rhin-en laguntza.

2018an, Versaillesko Musika Barrokoko Zentroak organista egotiar izendatu zuen, bakarlari zein laguntzaile gisa eta han-go eskolaniarekin elkarlanean aritu zen. 2019tik 2020ra, New Orleanseko (AEB) San Luis Katedralean «Artista gazte egot-iliarra» izan zen.

Kontzertu ugari eman ditu bakarlari gisa eta hainbat formaziotan, bai Frantzia bai atzerrian, eta Parisko Orkestrarekin eta Parisko Orkestra Filarmonikoarekin lan-kidetzan aritzen da organoa behar den kontzertuetan.

Musika erreperitorio zabalaren zale amorratua da, erdi Arotik gaur egunera arte, eta organoan eta organo portatiboan (organetto) oinarritutako hainbat proiektu garatzen dihardu. Organoaren erreperitorio klasikoa lantzeaz gain, inprobisazioaren bidez, aintzikako instrumentuak ikertzen ditu, hurbilketa espermental eta berritzaile metodoa erabiliz. Nabarmentzekoa da organoa, organettoa eta zanfona elektri-koa uztartzen dituen AT M duoa.

Loriane Llorca, organista concertista, se gradu  en el Conservatorio Nacional Superior de M sica y Danza de Paris en 2021 con un M ster en Interpretaci n de  rgano, teniendo como maestros a Oli-vier Latry y Michel Bouvard, y en 2022 con un M ster en Bajo Continuo.

Apoiada por la Fondation de France-Ustaritz, la Fondation Meyer, la Fondation Tarrazi, Adami, la Soci t  G n rale y l'Or du Rhin, Llorca gan  en 2017 el Gran Premio y el Premio del P blico en el Concurso Internacional Jean-Louis Florentz, organiza-do por la Academia de Bellas Artes.

En 2018, fue invitada como organista so-lista y acompa ante en residencia por el Centro de M sica Barroca de Versailles, colaborando con la escolan a. Entre 2019 y 2020, desempe  el rol de «Joven artis-ta residente» en la Catedral de San Luis en Nueva Orleans, Estados Unidos.

Ha ofrecido numerosos conciertos como solista y en diversas formaciones tanto en Francia como en el extranjero, y colabora regularmente con la Orquesta de Paris y la Filarm nica de Paris en conciertos que incluyen  rgano.

Apasionada por el vasto repertorio mu-sical desde la Edad Media hasta la ac-tualidad, Loriane desarrolla m ltiples proyectos centrados en el  rgano y el  rgano portativo (organetto). Adem s de defender el repertorio cl sico del  rgano, explora una aproximaci n experimental y novedosa a estos instrumentos antiguos, especialmente a trav s de la improvisaci n, destacando su d o AT M, que combina  rgano, organetto y zanfona el ctrica.

